




Bide-Hezkuntza lehenengo urteetan

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Argitaraldia:	2006ko abendua
Ale kopurua:	2.000 ale.
Copyright:	Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo saila.
Egilea:	Josu García
Argazki:	F. Gómez, P. Uresti, L. A. Gómez, J. García, S. Fernández eta J. Alemany
Diseinu:	Noelia Martínez
Koordinatzailea:	Martín Gil Osoro
Argitalpen produkzioa:	Dorleta S.A.
Inprimaketa:	E.G. Zure S.A.
ISBN:	84-87812-63-5
D.L.:	Bi-315-07

Aurkezpena

Familia guztien bizitzan heltzen da egun bat non seme-alabek kalera bakarrik irten nahi duten, ziklo-motorra izatea amesten duten edo bizikletaz ibilaldi luzea egiteko irrikitan dauden. Orduantxe, hasierako zirrara igaro ondoren, jakin nahi dute gurasoek euren txikiak ongi hezi ote dituzten bide-segurtasuna bezain gai garrantzitsuan.

Eskuliburu honen helburua gurasoei eta tutoreei laguntza ematea da, horiek umeei segurtasunarekin eta trafikoarekin lotutako zein alderdi izango zaizkien erabilgarrien jakin dezaten. Oinarritzakoak baina halere garrantzitsuak diren aurauen laburpena da honako hau. Hemen azaldutako aholkuak erabakigarriak izango dira bihar-etzian txikiak kalera autonomia guztiaz irteteko gai izan daitezen, hirian aise eta zuhurtziaz moldatu ahal izateko funtsezko zenbait ezagutza, balore eta arau eurenganatuta. Hiriok, bestalde, gero eta masifikatuago daude eta potentzia handiagodun auto azkarragoak dituzte.

Hezkuntza gizartea antzaldatzeko instrumentua ere bada. Gure seme-alabei, hots, bihar-etziko oinezko, bizikletari eta gidariak izango direnei, arauenganako errespetua izaten irakasten badiegu, etorkizunean atseginagoa eta gizatiarragoa izango da gure espaloiak, kaleak eta errepideak erabiltzea.

Andoni Arriola Garrido, Trafiko zuzendaria

Aurkibidea

1. KAPITULUA: Bide-hezkuntzaren garrantzia

2. KAPITULUA: Kalean (oinezkoa)

3.KAPITULUA: Autoan

4. KAPITULUA: Eskola-autobusean eta beste garraio publikoetan

5.KAPITULUA: Parkean

6.KAPITULUA: Bizikleta

7.KAPITULUA: Beste egoera interesgarriak

Bide-Hezkuntza lehenengo urteetan

1.1.-Bide-hezkuntza gizarteko balore legez

1.2.-Gurasoak, jarraitu beharreko eredu

1.3.-Metodologia. Hezi eta motibatu

2.1.-Galtzadak eta zirkulazioa ezagutu

2.2.-Semaforoak

2.3.-Zebra-bidea

2.4.-Kontuz Autoekin

2.5.-Agenteak

3.1.-Haurrak eusteko gailuak

3.2.-Beste segurtasun-gailu batzuk

3.3.-Adingabeak motozikletan eramateko araudia

3.4.-Auto barruko jarrera

3.5.-Aita eta ama bolante aurrean

3.6.-Aparkaleku publikoetan

4.1.-Eskola-autobusa

4.2.-Taxietan

5.1.-Gurpiloholak eta irristailuak

5.2.-Beste arrisku-faktore batzuk

6.1.-Lehenengo urteetan

6.2.-Bizikletaren prestakuntza

6.3.-Kaskoa

6.4.-Ibilbide seguruak

6.5.-Gidatzeko arauak eta jarraibideak

7.1.-Nire seme-alabaren lehenengo irteera

7.2.-Nire seme-alabak ziklomotorra nahi du

Bide-hezkuntzaren garrantzia



1.1- Bide-hezkuntza gizarteko balore legez

Jai-zubi edo oporraldi bakoitzaren ondoren albistegiek eta egunkariak errepidean hildakoei buruzko estatistika tamalgarrien berri ematen dute. Guztiok egin beharko genioke aurka zorigaiztoko errealitate honi. Ezin da beste bizitza bakar bat ere galdu arduragabekeria baten edo jokatibide ausartegiaren erruz.

Testuinguru honetan, bide-hezkuntza da joera horri alde-
rantzizko norabidea emateko armarik onena. Gizarte hone-
tan modu seguruan eta egokian gidatzeak berak balore bat
izan beharko luke. Behar bada oraindik ere urruti dugun
helburua izango da, baina guztion artean lor dezakegu.
Tresnarik onena: gure seme-alabei modu gizatiarragoan
eta zibilizatuagoan gida daitekeela ulertzen laguntzea.
Hori oso onuragarri izango da ez soilik eurentzako, gizarte
osoarentzako baizik.

1.2.- Gurasoak, jarraitu beharreko eredua

Umeek euren buruak begiratzeko beti erabiltzen duten
ispilua dira gurasoak eta hezitzaileak. Helduok jakin egin
behar dugu hartzen dugun edozein jarrera desegoki haiek
txarrerako kopiatuko dutela. Horrexegatik, bolante au-
rrean jartzen garen aldi oro gure jarrerak duen garrantziaz
jabetu behar dugu, horixe ikasiko baitute gure umeek.

1.3.- Metodologia: hezi eta motibatu

Eskuliburu honek jarrera konstruktibotik abiatuta hezitzea
bilatzen du beti ere. Motibazioa eta jolasa erabili nahi di-
tugu, baina egoera arriskutsuen aurrean irmotasuna albo
batera utzi gabe.

Horrela, bada, hezitzaileak informatu-motibatu-ikasi-sari-
tu heziketa motaren jakitun izan beharko dira. Lehenengo,
arauak jakinarazi behar dizkiegu gure seme-alabei. Ondor-
en, euren irudimena sustatu beharko dugu barnera eta
errespetatzen. Azkenik, praktikan jartzea eta saria (zo-
rionak emate hutsa izan daiteke) baino ez dira falta ikaske-
ta prozesu hau biribiltzeko.



Bide-hezkuntza
funtsezko gaia
da gizarte honen
etorkizunerako



*Gure errepide
eta hirietako
etorkizun hobe
baten hazia da
bide-hezkuntza.*



Informatu, hezi eta
motibatu

2.KAPITULUA

Kalean



Gure seme-alabak bideen gainontzeko erabiltzaileekin, batez ere motordun ibilgailuekin, lehenengo aldiz harremanetan gure hirietako kaleetan, espaloietan eta errepideetan jarriko dira. 2004ean, euskal hirietan guztira 14 oinezko hil ziren ibilgailuek harrapatuta. 2005ean sei heriotza izan ziren. Gure umeei hirigunean guztiz seguru moldatzen lagunduko dieten oinarrizko arauak txiki-txikitatik irakastea beharrezkoa dela erakusten du estatistika horrek.

2.1.- Galtzadak eta zirkulazioa ezagutu

Neska-mutillak euren kabuz ibiltzen hasten direnetik nahitaezkoa da une batez ere ez uztea kalean bakarrik, zaintzarik gabe. Bizitzako lehenengo urteotan, umea autoa eta errepidea zer diren bereizteko gai izan arte, ezinbestekoa da eskutik helduta eramatea eta kontrol hori benetan seguruak diren guneetan soilik lasaitzea.

Era berean, gurasoen besoa gidaririk onena bihurtzen da neska-mutilek oinezko izaten ikas dezaten. Gurasoak ereduak dira, eta baita irakaskuntza eskulibururik osoena ere. Apurka-apurka, pixkanaka, irakats diezaiekegu espaloia, zintarraria edo beheargunea zer diren, azken finean, errepidearen eta oinezkoak libreki mugi daitezkeen guneen arteko mugak zeintzuk diren barneratzen.

Horri dagokionez, muga horiek heldu baten zaintzapean egon gabe sekula zeharka ez ditzaten hezi behar dira.

2.2.- Semaforoak

Trafikoa arautzen duten elementuetatik umeek ikasiko dituzten lehenengoak dira. Euren kolore-mekanismo soila ulertaraz da, eta ume askorentzat erakargarriak dira, batez ere mugitzen diren panpinak eta segundo kontagailua dituzten modelo berriak.

Aski da bi ekuazio erraz irakastea: gorriak arriskua esan nahi du; itxaron egin behar da. Eta berdea: igarotzeko askatasuna, gurutza dezakegu, beti ere kontuz.

Hala ere, argiak galtzada zeharka dezakegula adierazi arren, ibilgailurik ez datorrela edo daudenak gelditu daudela egiaztatzeko albo bietara begiratzea komeni dela irakastea garrantzitsua da. Arau hau bereziki gomendagarria da ibil-



Beti eskutik helduta gurutzatu

GAZTAKIA

Lehenengo urratsa errepidea ezagutzen laguntzeak izan behar du beti. Hori lortutakoan gauza gehiago egiten saia daiteke umeak pixkanaka autonomia handiagoa lor dezan.

JOLASAK

Gurasoek eta seme-alabek hitzar dezakete errepideko mugara heltzean denek "errepidea" esan behar dutela. Neska-mutilek gogoko izan ohi duten denbora-pasa da, eta era berean, gurasoen arreta eta konfiantza bereganatzen dute.



Soinu-seinaleak
igortzen dituzten
semaforoak
interesgarriak dira



TRIKIMAILUA

*Badaude
itsuentzako
soinu-seinaleak
igortzen dituzten
semaforoak.
Interesgarriak
dira umeei nola
funtzionatzen
duten ikasteko
beste pizgarri bat
izan dezaten*

gailuentzako anbar koloreko argidun semaforo ñirñinkaria ondoan duen oinezkoentzako semaforo baten aurrean egonez gero.

Gure seme-alabei gogorarazi behar diegu ez dutela bidea gurutzatu behar argi berdea aldizkakoa denean, gorri jarzear dagoela esan nahi baitu. Oso garrantzitsua da, izan ere, umeei ez dituzte heldu baten erreakzio-abiadura eta bizkortasuna.

2.3.- Zebra-bidea

Oinezkoentzako pasabideak beti egon behar du gure seme-alaben buruan. Horri dagokionez, bide-seinaleok erabiltzeko hamar metro gehiago ibiltzea galtzada horretarako prestatu gabe dagoen tokitik gurutzatzatzea baino hobeto dela irakatsi behar diegu.

Nola gurutzatu oinezkoentzako pasabidea? Erraza da. Umeak beti begiratu behar du bi aldeetara. Izan ere, zebra-bidean egonagatik ez dugu edonola gurutzatu behar. Ibilgailurik ez datorrela edo inguruan daudenak guztiz gelditu direla egiaztatu ondoren, orduantxe abia gaitezke.

Gomendatzeko modukoa da umeei azaltzea ibilgailuen gainetik eskubidea edo lehentasuna gure alde izan arren, gidari askok seinaleak errespetatzen ez dituztenez beti kontuz zeharkatu behar dela.

Zorionez, hiri handietan, erakundeek ahaleginari esker, espaloietan oinezkoen zebra-bideetara eramaten duten eskudelekin mugatuta daude. Garrantzitsua da gure seme-alabei hesion gainetik ez dutela sekula salto egin behar azaltzea.

2.4.- Kontuz autoekin

Nahiz eta galtzada gurutzatzeko prestatutako tokiak erabili, litekeena da sarritan ikusgaitasun urriko tokietatik zeharkatzea. Garrantzitsua da seme-alabei egoera honen aurrean erreakzio egokitoa gomendatzea. Are gehiago ondoren go baldintzetako bat emanez gero:

-Bigarren ilaran gaizki aparkatutako autoak daude. Hobeto da kalea haiengandik urrunduz gurutzatzea. Horrela, zirkulazioa argiago ikusi ahal izango dugu eta era



Irakatsieiazeu seme-alabei zebra-bideak ezagutzen

berean gainontzeko ibilgailuek hobeto ikusiko gaituzte.

-Autobusetik jaisten gara. Hobeto da gure seme-alabei kalea gurutzatzeko autobusa joan arte itxaroteko esatea. Inoiz ez dute haren atzetik edo aurre-aurretik zeharkatu behar. Oso arriskutsua da.

-Auto bat dago aparkatuta eta gurutzatu egin nahi dugu. Inoiz ez da atzetik egin behar, eta egitekotan, seme-alabei auto barruan gidaririk ez dagoela egiaztatzeko esan behar diegu. Atzera-martxako maniobrak egiten dituzten autoak nahiko arriskutsuak dira, batez ere umeez ari garenean, euren garaiera txikia dela eta.

2.5. Atala- agentea

Trafiko-agenteen eta polizien zeregina erabakigarria da zirkulazioa arautzeko eta zirkulazio-araudia betetzeko. Horregatik oso garrantzitsua da seme-alabei funtzionario publikoon aginduak errespetatzen irakastea.

Agenteek ikastetxeetako irteerako oinezkoen pasabideak zaintzen dituzte batez ere. Luzatutako eskuak gelditzera behartzen du oinezkoa, eta agenteak eskua behin eta berriaz astintzen badu, gurutza daitekeela adierazten ari da.



Kontuz autobusetik jaisterakoan



Berdea identifikatzea. Semaforoa gorri dagoenean eta gurasoak eta seme-alabak itzaroten daudenean, semaforoaren kolorea aldatu dela konturatzeko den taldeko lehen kidea nor den ikustera jolas daiteke familia. "Berdea" lehenengo oihukatzen duenak irabaziko du.



Agenteari beti egin behar zaio kasu

3.KAPITULUA

Autoan



Seme-alaben lehenengo joan-etorriak beti izaten dira familiaren autoan. Txikiek jokabide-ereduak ikasten eta gurasoak imitatzen dituzte, beraz, azken horiek jarraitu beharreko eredu bihurtzen dira. Ondorioz, euren segurtasuna zaintzeaz gain, modu arduratsuan hezi behar ditugu, bihar-etzi, gidariak eurak direnean, izariz eta tentuz ibil daitezen. Geure ibilgailu partikularra bide-hezkuntzarako ikasgelarik onena dela sinetsi behar dugu.

Horregatik, baloreak helarazi eta guk geuk zirkulazio arauak bete ahal izateko kontuan izan beharreko hainbat alderdi daude.

3.1.- Haurrak eusteko gailuak

Gure seme-alabek 1,35 metrotik gorako garaiera izan arte —ordutik aurrera helduen segurtasun-uhala erabili behar ko dute— segurtasun-sistema bereziarekin eraman behar ditugu autoan. Hizkera arruntan umeentzako aulkitxo moduan ezagutzen diren euste-sistemok adingabeak babesten dituzte istripurik izanez gero. Euren uhal edo salbamendu txikia dira, izan ere, arinak direnez, bereziki nabaritzen dituzte ustekabeko maniobrak, bat-bateko abiadura bizkortzeak, balaztadak eta gerta litezkeen istripuak.

Daturik esanguratsuen a talka egotekotan kalteak % 75 ere gutxitzen dituztela da. Deustu Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak duela hilabete gutxi garatutako ikerketaren arabera, Euskadin gurasoen % 95ek baieztatzen du gailuok erabiltzen dituela bidaia luzeetan. Ehunekoa % 80 arte jaisten da joan-etorri ertainetan, eta % 75 arte ibilbide laburretan. Gogora ezazu hil edo bizikoa dela txikia gailuokin babestea.

Hala ere, umeentzako sistemak ongi erabiltzen jakin behar da. Izan ere, aipatutako ikerketaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan aulkitxoen % 25 modu desegokian erabiltzen da, eta horrek nabarmen gutxitzen du beren eraginkortasuna. Ezin hobeto erabiltzeko, arretaz kontsultza itzazu fabrikatzaileen argibideak. Ez dizkizu hamar minutu baino gehiago kenduko, eta zure umetxoaren bizitza salba dezake.

Adi: Haurrak eusteko sistema aurreko eserlekuan jarri behar baduzu, gogora ezazu pilotukidearen eserlekuko airbagak indargabetuta egon behar duela. Gainera, nahiz eta



Segurtasun ohiala beti jarrita eraman behar da



Ateen eta leihatilen blokeoak hauta ona dira



TRIKIMAILUA

Seme-alabak
hezterakoan
hauvrentzako
aulkian egokira
bidaiatzearen
garantzia
irakastea
erabakigarria
izan daiteke
etorkizunean
segurtasun-uhala
beti lotzeko
ohitura ona har
dezan.

ibilbidea laburra izan, umea jar ezazu beti segurtasun-sis-
teman, ahal dela bidaiari-lekuaren atzealdean.

Gailu motak, adinaren arabera

Ikusi dugunez, PISUAK zehazten du zein taldetan sartu be-
har den umea eta segurtasunezko zein tresna erabiliko du-
gun. Irizpide homen arabera, Nazio Batuen 44. zenbakiko
Araudiak bost talde ezarri ditu, hurrengo laukian ikusten
denez:

PISUA	EUSTEKO SISTEMA	ADINA
0-10 kg	Segurtasun sehaska jaio berrientzako Segurtasun jesarle- kua atzerantz begira	0-9 hilabete
0-13 kg	Segurtasun jesarle- kua atzerantz begira	2 urte ingururarte
9-18 kg	Segurtasun jesarle- kua atzerantz begira	9 hilabete- 3 urte
15-25 kg	Bizkarraldea duen jesarleku	3-6 urte
22-36 kg	Jesarleku jasotzailea	6-12 urte

3.2.- Beste segurtasun-gailu batzuk

Badira oso interesgarri gerta daitezkeen haurren babeserako beste sistema batzuk ere. Ohikoena gidariaren eserlekutik gauzatzen den ateen eta leihatilen blokeoa da. Umeek ibilbidean zehar besoak atera edo ibilgailutik irten ahal izatea ekiditen dute.

Halaber, garrantzitsua da neska-mutilak autotik egokiro, errepidera ematen duen atea irekitzea saihestuta, jaits daitezen heztea.

3.3.- Adingabeak motozikletan eramateko araudia

Indarrean dagoen araudiaren arabera, debekatuta dago 12 urtetik beherako pertsonak motozikletan eramatea. Arau hau haustea gidabaimen-sistema berriko bi puntu kenduz zigortzen da. Hala ere, salbuespen gisa, onartuta dago zazpi urtetik gorako umeak motozikletan ibiltzea, “beti ere gurasoetako bat, tutorea edo horiek baimendutako adin nagusiko norbait bada gidaria”.

Gogorarazi behar da gidariak ez ezik berekin doazenek ere orobat jantzi beharko dutela derrigorrezko kaskoa. Gainera, semea edo alaba motozikletara igotzea erabakiz gero, interesgarria litzateke zuen artean eskuen bidezko komunikazio-kodea ezartzea ezustekoak ekiditeko. Adibidez, eskuineko sorbaldan birritan ukitzeak zerbait gaizki doala eta adingabeak ibilgailutik jaitsi nahi duela adieraz lezake.

3.4.- Auto barruko jarrera

Seme-alabei erakutsi beharreko urrezko araua honako hau da: ez da gidaria gogaitu behar eta ez zaio arreta galarazi behar. Garrantzitsua da auto barruan bolante aurrean dagoena aztora dezaketen egoerak ekidingo dituen giro ona ezartzea.

Horri dagokionez, oso garrantzitsua da laguntzailearen figura, batez ere bidaia luzeetan. Haren ardura izango da umeak entretentzea. Kantuak, komikiak, betiko jolasak... dena da baliagarria ibilbidea eramangarriago egiteko. Txikiak atsedean hartu ahal izateko sarritan gelditzea ere gomendagarria da.



Kontsulta itzazu argibideak haurrak eusteko gailuek nola funtzionatzen duten jakiteko



Ez ahaztu kaskoa

Auto barruan giro onak
izan behar du nagusi

JOLASA

*Laguntzaileak
proposa
ditzakeen
denbora-pasetako
bat, esaterako,
errepidean
joan bitartean
objektuak
aurkitzea izan
daiteke. Adibidez,
txikiak tantoak
gehituko dituzte
auto berde bat,
zubi bat, txakur
bat edo kamioi
bat ikusten duten
aldi oro. Beste
hauetako jarduerak
ere egin daitezke:
bide-seinale
bakoitzaren
esanakia
erakutsi gero
eurek identifika
ditzaten,
ipuinak asmatu
edo kontatu,
asmakizunak
esan...*



Edaten baduzu ez
gidatu, eta are gutxiago
umeak badaramatzazu



Adi: DVD irakurgailuak ere erabilgarriak izan daitezke neska-mutilek film bat ikusiaz ongi pasa dezaten, baina gailu eramangarria erabiltzen baduzu gogora ezazu debekaturat dagoela ibilgailuaren aurreko aldean jartzea, gidariari arreta galaraz baitiezaioke.

3.5.- Aita eta ama bolante aurrean

Neska-mutilek euren buruak begiratzeko beti erabiltzen duten ispilua dira gurasoak. Txikiak behatu, ikasi eta kopiatu egiten dituzte helduen jokabide gehienak. Euren modukoak izan nahi dute. Nerabegarora bitartean, aitaren eta amaren figuraren eragina erabakigarria da. Horregatik, gure umeentzako eredu ona izateko ahalegina egin behar dugu.

Horrela, bolante aurrean jartzen garen aldi oro jakin egin behar dugu seme-alabek gure mugimendu, arduragabekeria edo abilezia guzti-guztiak barneratuko dituztela atzeko eserlekutik. Euste-aukiak besaulkirik onena, pribilegiadun talaia bihurtzen dira orduan gurasoen ohiturak, jokabidea eta gidatzeko modua aztertzeke.

Hona hemen gure seme-alabei balore positiboak igortzeko zenbait aholku:

-Neurriz gida ezazu, presarik gabe. Urduri edo aztoratuta bazaude, hobeto ibilgailura hartzen ez baduzu.

-Neurriz joka ezazu. Beste gidarien jarrerari ez erantzun inoiz ahozko indarkeria edo indarkeria fisikoa erabiliz. Gizona bazara, ez itzazu emakume gidariak gutxietsi, bide-segurtasunari dagokionez keinu txarra izateaz gain, semeari edo alabari balore matxistak irakasten ariko baitzara.

-Ez ezazu alkoholdun edaririk hartu ondoren gidatu. Lagunekin afaltzera edo parrandan irteterakoan ordezko garraiobideak (taxia, autobusa, metroa...) hartzeko premia gazteenei igortzea zure esku dago.

-Ez zaitez inoiz bolante aurrean duzun trebeziaz harrotu, zure semeak edo alabak arriskuak eta egoerak gutxies-tea ekarriko du. Gogora iezaiozu gidatzea oso gauza serioa dela eta arduragabekiaz egiteak ondorio lazgarriak ekar ditzakeela.

-Ingurumena. Autoa beharrezkoa denean baino ez erabili. Ez ezazu autoa, lagunartean esaten den moduan, ogia eta egunkaria erostera joateko ere hartu. Hitz egin ezazu seme-alabekin garraiobide honen erabilera ez-iraunkorrak edo gehiegizko erabilerak berekin dituen ingurumen arazoei buruz.

3.6.-Aparkalekuetan eta merkataritza-guneetan

Autoak abiadura txikian dabiltzanez gune seguru samarrak diruditen arren, garajeak eta aparkalekuak arrisku-iturri izan daitezke, batez ere txikienentzat. Ikusgaitasuna txikia da aparkatutako auto kopuru handiaren ondorioz, eta horri gure seme-alaben garaiera txikia gehituz gero, litekeena da gidariek umeak ez ikustea.

Horregatik, beharrezkoa da ekipamendu mota horretara adingabeekin goazenean bi segurtasun neurri soil hartzea:

1.- Argi utzi behar diegu ezin dutela bakarrik ibili eta garajeak ez direla jolasean aritzeko tokia. Komenigarria da txikiak beti ere aitari, amari edo tutoreari eskutik helduta mugitzea, eta horiek, nolanahi ere, begien bistan izan beharko dituzte une oro.

2.- Garrantzitsua da seme-alabei helaraztea gurasoak kotxetik irten arte ezin direla eurak jaitsi. Halaber, irakatsi behar zaie ez direla sekula ibilgailu baten atzean jarri behar, izan ere, bere garaiera txikiagatik umea ez ikus-tean horrek atzera martxa sar dezake bat-batean.



Merkataritza-guneetan, beti eskutik helduta



JOLASA

Umea motiba dezakezu horrelako instalazioetan beti zure ondoan egon dadin. Merkataritza-gune bateko aparkalekuan, esaterako, estrategia ona da erosketetarako organoa uztera edo hartzera laguntzeko eskatzea.

4.KAPITULUA

Eskola-autobusean eta beste ibilgailu publikoetan



4.1.- Eskola-autobusa

Ia 80.000 ume euskaldunek erabiltzen dute kasik egunero errepideko garraio zerbitzua ikastetxera joateko. Garrantzitsua da bai gurasoek, baita txikienek ere zerbitzu horrek berekin dakartzan eskubideak eta betebeharrak ezagutzea.

Gurasoek jakin beharrekoa:

-Segurtasun-uhalak. Oro har, eskola-autobusetako eserlekuek haurrak eusteko sistemak izan behar dituzte aurrean gehienez 80 zentimetroko distantziara dagoen beste eserleku baten babesik ez badute. Hori, normalean, lehenengo lerroan, atzeko eskaileren ondoan eta ibilgailuaren atzealdean dauden eserlekuekin gertatzen da. Azken horien kasuan, bost urtetik beherako ikasleek ezingo dute hor bidaiatu.

Zure seme-alabek aipatutako kokalekuetakoren bat erabiliz gero, derrigorrez erabili beharko dute segurtasun-uhala. Ez badaude, lehenbailehen jakinarazi beharko diezu garraioaren arduradunei, edo Ertzaintzan salaketa ere jar dezakezu.

Gehienez zortzi eserleku dituzten mikrobusei dagokienez, eserleku guztiek segurtasun pasiboko elementuak izan beharko dituzte.

-Aldizkako ikuskapenak. Umeak garraiatzen dituzten ibilgailuek euren egoeraren eta segurtasun gailuen gaineko kontrol zorrotza pasatzen dute. Halaber, Ertzaintzak ausazko egiaztapenak egin ohi ditu.

-Laguntzailea. Eskola-garraio guztiek derrigor izan behar dute gidaria ez den adin nagusiko pertsona baten figura. Begirale honen oinarritzko eginkizuna bidaiarien segurtasunaz arduratzea da. Horretarako, legez behartuta dago umeak autobusetik ikastetxeko sarreraraino eramatera. Halaber, ibilgailuaren segurtasun-mekanismoak ezagutu behar ditu, eta bertan egon behar du zerbitzuaren lehenengo geltokitik hasita.

Euskadiko eskola publikoen sarean ia 400 laguntzaile daude. Profesionalok hezkuntza-lanak ere egiten dituzte txikien jarrera egokia zaintzeko.

Seme-alabei irakatsi behar diezuna



Autobusean ez mugitu zure lekutik



Hiriko autobusetan jarduera ona erakutsi behar da

Laguntzailearen figura oso garrantzitsua da



-Ume bakarra eserlekuko. Oinarrizko araua da. Irakats iezaiozu umeari eskolako autobusean ondoko eserlekuan doan lagunarekin soilik jolas dezakeela.

-Ez altxatu. Jakinaraz iezaiozu ibilbidean zehar ezingo duela aurrera edo atzera begiratzeko eserleku gainean zutitu ezta belauniko jarri ere. Ezingo du tokiz aldatu edo korridorean zehar ibili. Halaber, egokiro eserita ez badoa edozein balaztadaren edo bihurgune itxiren ondorioz kolpea har dezakeela ulertaraz iezaiozu.

-Irakats iezaiozu laguntzailearen figurari begirunea izan behar diola. Begiralearen lana irakaslearena bezain garrantzitsua da, eta harek bezain besteko aginpidea izan behar du.

-Azkenik, eska iezaiozu beti jarrera egokia erakusteko, izan ere, bere segurtasuna arriskuan egon daiteke.

Urrezko araua: Eskola-autobusean egindako ibilbideko unerik arriskutsuena ibilgailutik jaisterakoan gertatzen da, behar bada. Seme-alabei ohartaraz iezaiezu errepi-dea inoiz ez gurutzatzeko autobus baten ondoan, izan ere, oso handiak direnez galtzadaren ikuspegi osoa iza-tea eragozten dute. Oinezkoentzako pasabidea egon



Euskadin egunero 80.000 adingabetik gora doaz autobusez ikastetxera



arren, litekeena da gainontzeko gidariek adingabea ez ikustea. Hobeto da mugitu aurretik gure autobusa joan arte itxarotea.

4.2.- Taxian

Gurasoen kontuan izan behar dute 1,35 metrotik beherako garaiera duten adin txikikoek autoetan beti erabili behar dituztela haurrak eusteko sistemak. Baldintza hau taxietan ere eskatzen da, baina hiriarteko tarteetan soilik.

Legearen azken aldaketen arabera, taxi gidariek, hiriko zirkulazioan edo hiri handietako hirigunean dabiltzanean, 135 zentimetro baino gutxiago neurtzen duten pertsonak eraman ahal izango ditu euren neurrira eta pisura egokitu-tako homologatutako euste-gailurik erabili gabe, beti ere atzeko eserlekuan badoaz.

Umearekin zerbitzu publiko hori erabiliz bidaiatu behar baduzu, gomendagarria da zeure segurtasun gailua eramatea, izan ere, litekeena da taxi gidariak halakorik ez izatea. Inola ere ez zaitez txikia besoetan edo uhal arrunta-rekin lotuta eramateko prest agertu hiri bidetik irten behar baduzue.

Parkean



Ibilgailu mota hau erabiltzen duten umeek eurentzako bereziki prestatutako guneetan egin beharko lukete: skate-parketan eta bidegorrietan. Debekatuta dago errepidean egitea, beharrezko seinaleekin adierazitako bizitegi-kalea ez baldin bada behintzat. Oinezkoentzako guneei, parkeei eta aisialdirako eremuei dago-kienez, horietatik ibiltzea beste aukerarik ez badute, beti edozein arrisku egoeraren aurrean balaztatu ahal izateko behar bezain abiadura txikian joan behar dutela helarazi behar diegu gurasoek. Garrantzitsua da gainontzeko oinezkoak eta erabiltzaileak errespetatzea, izan ere, hiria guztion artean osatzen dugu. Hala-ber, ulertaraz iezaiezu kaskoa eta beste babeski batzuek, esaterako belauetakoak edo ukondokoak, erabili behar dituztela.

5.1.- Gurpiloholak eta irristailuak

Ibilgailu mota hau erabiltzen duten umeek eurentzako bereziki prestatutako guneetan egin beharko lukete: skate-parketan eta bidegorrietan. Debekatuta dago errepidean egitea, beharrezko seinaleekin adierazitako bizitegi-kalea ez baldin bada behintzat. Oinezkoentzako guneei, parkeei eta aisialdirako eremuei dago-kienez, horietatik ibiltzea beste aukerarik ez badute, beti edozein arrisku egoeraren aurrean balaztatu ahal izateko behar bezain abiadura txikian joan behar dutela helarazi behar diegu gurasoek. Garrantzitsua da gainontzeko oinezkoak eta erabiltzaileak errespetatzea, izan ere, hiria guztion artean osatzen dugu. Hala-ber, ulertaraz iezaiezu kaskoa eta beste babeski batzuek, esaterako belauetakoak edo ukondokoak, erabili behar dituztela.

Azkenik, txikiek hiri-altzariak errespetatu beharko dituzte. Bankuen gainetik salto eginaz edo paperontzien zein baranden gainetik irristatuz patinatzeak kalte larriak eragin ditzake guztionaren ekipamenduan.

5.2.- Beste arrisku-faktore batzuk

Seme-alabek segurtasunez jolastea eta aisialdiaz gozatzea nahi badugu, gutxienez bi egoera ohartarazi behar dizkiegu:

-Baloiak eta jolaserako beste objektu batzuk. Pilota errepidera erori bada, ez da begiratu gabe haren atzean korrika irten behar. Egokiena jasotzeko gurasoei eskatzea litzateke. Eurak egitekotan, aurretik gurasoek helarazitako edo haiekin hitzartutako jarduera-jarraibideak jarraitzea da aproposena.

-Maskotak. Txakurrek eta gainontzeko laguntza-animaliek lotuta egon beharko dute. Bestela, gure seme-alabek arriskuan jar dezakete parkeko gainontzeko erabiltzaileen segurtasuna, eta baita eurena ere. Ez utzi inoiz, esaterako, txakur bat umearen ardurapean, ez baldin badu animalia kontrolatzeko behar besteko indarrik edo prestakuntzarik.



Badaude patinatzen doan irakasten duten taldeak



TRIKIMAILUA

Seme-alabak ikastaroetara eramán ditzakezu patinatzen ikas dezaten. Bilbon badago eskolák doan ematen dituen talde bat: Asociación de Patinaje Urbano Zona Verde, www.cdzonaverde.com. Gasteizen Gaubela taldea dago (www.vitoria.asespat.es), eta horiek ere zenbait irakaskuntza-jarduera gauzatzen ditu.



Kontuz baloiekin eta pilotekin

Bizikletaz



Bizikleta garraio ezin hobea da. Esfortzu fisiko osasungarria bultzatzen du, hirietako trafikoa murrizten du eta ingurumena errespetatzen du, ez baitu inolako gas kutsakorrik aieratzen. Seme-alabei hain ezaugarri onuragarriak dituen lokomozio-bidea erabiltzearen onura erakutsi behar diegu gurasoek. Hala ere, Europako beste herrialde batzuetan, esaterako Holandan edo Alemanian, gertatzen ez den bezala, Euskal Herriko eta Estatuko hirietatik pedalei eraginez mugitzea ez da erreza, eta sarritan zenbait arrisku ere izan ditzake berekin.

Gurasoen betebeharra da neska-mutilei arauak errespetatzen irakastea. Nork bere burua babesteko zenbait neurri irakastea ere ezinbestekoa da. Txikitatik ikastea erabakigarria da etorkizunean bizikleta egokiro erabiltzeko.

6.1.- Lehenengo urteetan

Seme-alabak oraindik ere oso txikiak direnean, gurasoek bizikletan eurekin ibiltzea erabaki dezakete. Neurri ona izango da mugitzeko orduan ohiturak eta azturak irakasteko. Gogora ezazu une oro errespetatu behar dituzula arauak, umeek arreta handiz begiratzen baitotie zuk bizikleta gidatzerakoan egiten duzunari.

-Haurrentzako aulkia:

Txikien adina eta garapena kontuan izanda, gogoan hartu beharreko lehenengo aukera haurrentzako aulkia da; horrek ama-alabei bizikleta berean ibiltzea ahalbidetzen die. Funtsezkoa da homologatuta egotea —argibideak saltaileari eskatu—, eta are garrantzitsuagoa da umeak ongi lotzea eta, batez ere, haurrentzako kaskoa eta babeskiak ere jartzea. Ahalegindu zaitez inongo ezustekorik ez izaten eta guztiz seguruak diren guneetatik ibiltzen. Bestela, zure seme-alabek beldura har liezaiokete txirrindularitzari.

Haurrentzako gailuak atzeko aldean jarri ohi ziren, baina egun Kataluniako enpresa bat aurrealderako modelo bat merkaturatzen ari da, eta merkaturatzea goitik behera aldatzen ari da. Guraso askoren ustean, mekanismo honek babes handiagoa ematen du harrapaketen eta erorketen aurrean. Izan ere, istripurik egotekotan, gurasoak berak ere besarkatu eta bere besoekin babes dezake umea; bestalde, bere txikiak aurrean gertatzen den guztia ikusten du. Erabili dutenek adierazi dutenez, seguruagoa eta dibertigarriagoa



Seme-alaben bizikleta beti prest manten ezazu



Aurrekaldeko aulkia



Komenigarria da azterketak profesional batek egitea



TRIKIMAILUA

Igo ezazu semea edo alaba bizikleta gainera, eta esaiozu bielak, erlojua izanez gero, seiak puntuan adierazteko moduan jartzeko. Orain eska iezaziozu orpoak pedalen gainean jartzeko. Jarrera honetan, tolestuta ez dagoen hankako belarriak ia guztiz luzatuta egon beharko luke. Hala bada, horixe da umearen bizikleta neurria.

da. Homologatuta dago, eta egokia da 3 urtera bitarteko umeentzat (16 kilogramo inguru).

-Gailu erdiautomatikoak:

Badira, baita ere, gurasoek gidaritzaren kontrola izaten jarraitu arren umei nolabaiteko autonomia ematen dieten beste mekanismo batzuk ere. Oso erabilgarriak dira irakasteko eta hezteko. Gehienak Holandatik datoz, eta ezagunenak Trail-Gator eta Follow-me (Zatoz nire atzetik) dira. Biak ere umearen bizikleta aitarenarekin edo amarenarekin lotzea ahalbietetzen duten euste-sistemak dira. Txikiak pedalei eragin diezaieke, baina inolaz ere ezin du ibilgailua gidatu.

Nabarmendu behar da bizikletako haurrentzako aulkian eserita doazen neska-mutilek lepoan kalteak izatea ekiditeko lepoko edo kuxin bertikal berezia dagoela.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Aurrealderako aulkia

<http://www.sillabicicleta infantil.com>

Sistema erdiautomatikoak

<http://www.followme-tandem.com/>

<http://www.trail-gator.com/>

Lepoko berezia

http://www.sandini.de/german/sandini_gmbh_home_ger.htm

-Bizikleta aukeratzea:

Seme-alabentzako bizikleta erosterakoan bi parametro izango dira erabakigarriak: segurtasuna eta neurria.

Balaztak, estalkiak edo pneumatikoak eta esekidura dira segurtasun elementurik garrantzitsuenak. Hautatzeko, eman lehentasuna mekanismo hauetan indartsu diren modeloei. Sahiestu funtsezkoak ez diren faktoreak, estetika edo diseinua kasurako.

Bizikletaren neurria ere garrantzitsua da. Umea erosoago joango da bere garaierara egokitutako bizikletan. Ez eman gehiegizko garrantzirik fabrikatzaileak gomendatutako adinei, ez baitago marka guztientzako baliagarri den estandarrik. Gainera, baliteke zure semea edo alaba bere adinerako normala izan beharko litzatekeena baino

garaia goa edo txiki goa izatea. Garrantzitsuena aulkia eta eskulekua erregulagarriak izatea —bizikletak denbora gehiago iraungo die— eta bere garaierara egokituta egotea da.

6.2.- Zelaren prestakuntza

Txirrindulariek urtero jasaten dituzten istripuen ehuneko garrantzitsu bat materialen egoera txarrari edo horien mantentze eskasari lotuta egoten da. Gure seme-alabei dagokienean, gurasook euren bizikleta aldizka ikuskatzeko ahalegina egin behar dugu.

Eta hori umeak bizikletari ematen dion erabileraren arabera egin beharko genuke. Hots, erabilera gero eta intentsiboagoa izan, orduan eta sakonagoa izan beharko du ikuskapenak. Segurtasun aktiboko elementuen (balaztak), pneumatikoen eta esekiduraren egoera egiaztatzea komeni da batez ere, baina ez dira ahaztu behar beste alderdi batzuk, esaterako, direkzioa, gurpilen itxigailuak edo egon litezkeen lasaierak.

Neska-mutilek ez lukete inoiz etxetik irten behar hustutako gurpilekin, edo gutxitutako galgekin zein galgarik gabe. Ahalegindu zaitez elementuok ezin hobeki funtziona dezaten. Behar den gutxieneko kalifikazioa oso ongi da, nahiko justu-justua ez da aski.

6.3.- Kaskoa

Derrigorrezkoa da hiriarteko bideetan, eta aukerakoa hirian soilik, halere, kaskoa eramatea beti da gomendagarria. Irakats iezaiezu seme-alabei erorketa larria, talka edo istripua gertatuz gero bizia salba diezaiekeen babeski honen ganako estimua erakusten.

Homologatuta dagoen —UE eta CE siglak dituzte— eta umearentzako neurri egokia duen modelo erostea gakoa da baita ere. Hautzaroan zehar, zure seme-alabek bi edo hiru urtean behin aldatu beharko dute kaskoa. Pentsa eza zu ongi inbertitutako dirua dela.

Azkenik, egokiro jartzen erakutsi beharko diozu. Erraza da: nahikoa da uhalak estutzea eta bekainen eta babeskiaren artean pare bat atzamar sartzeko moduan jartzea kaskoaren bisera.



Garrantzitsua da bizikletaren neurria ongi aukeratzea



TRIKIMAILUA

Oso erosoa da eta eraginkorragoa da. Aldian-aldean eramanez itzazu familiako bizikletak espezializatutako tailer edo denda batera profesional batek landu ditzan. Horrela, zure seme-alaben segurtasunerako funtsezkoa den jardueraren behin eta berriro atzeratzea ekidindo duzu. Nahiko azterketa osoak aurki daitezke 10 edo 12 eurotik aurrera.



Mantenua segurtasunaren gakoa da



Kaskoa, beti soinean.



*Duela oso gutxi
arte txirrindulari
profesional
gehienek ez
zuten kaskorik
erabiltzen
lasterketetan.
Orain
derrigorrezkoa
da eta guztiek
daramate, izan
ere, egin ezean
zigor gogorra
jaso dezakete.
Zure semea
edo alaba
txirrindularitza
zalea bada,
horretaz baliatu
miresten dituen
kirolari guztiek
babezki hori
daramatela
esateko.*

Eskularruak ere segurtasun elementu interesgarria dira. Erorketarik egonez gero, kolpea leuntzen dute eta urradurak ekiditen dituzte. Ukondokoak eta belaunetakoak jartzen ere saia zaitezke, baina beti ere adi egon behar duzu osagarriok mugikortasuna mugatu ez diezaioten. Azkenik, hobeto da txikiak kolore argi eta deigarriak arropekin janztea, gidariak, beste txirrindulariek edo oinezkoek erraz identifikatu ahal izateko.

6.4.- Ibilbide seguruak

Txirrindulariak ia bide guztietan ibil daitezke, autobideetan, autobietan eta oinezkoentzako bideetan izan ezik. Hala ere, garrantzitsua da seme-alabei benetan seguruak direnak soilik erabili behar dituztela ulertaraztea.

Lehenik eta behin, adingabeak hiriarteko errepideetatik ibiltzea galarazi beharko genuke. Arriskutsuenak dira. Zirkulazio-bolumenagatik baino gehiago —nahiz eta hainbat kasutan horrek ere garrantzia duen— autoek eta kamioiek daramaten abiaduragatik. Bide horietan pedalei eragiteak kontzentrazioa eta heldutasuna eskatzen ditu, horrexegatik ez dira eurentzako egokiak.

Neska-mutiek bidegorriak eta eurentzako bereziki presatutako bideak erabiltzea da egokiena. Hor bizikleta ongi erabiltzen ikasiko dute eta, era berean, nagusiagoak direnean hiriko beste bide batzuk probatzeko konfiantza nahikoa lortuko dute. Erakutsieziaiezu txirrindularientzako bereziki diseinatutako guneok non dauden, eta erabil ditzaten motiba itzazu. Lotura tarteak, etxetik bizikleta-bidera bitartekoak, beste garraio batzuetan egin daitezke (autoa, metroa...) edo baita oinez ere, bizikletara igo gabe.

Garrantzitsua da familia barruan erabakitzea bizikletaz non ibil daitekeen eta non ez.

Azken buruan ez badu beste irtenbiderik eta semeak edo alabak errepidera irtetea erabakitzen badu, ez iezaiozu beldurrik transmititu, baina bai gehiegizko zirkulazioa daramaten bideenganako errespetua. Erregutu iezaiozu beti zirkulazio-kodea errespetatzeko.

6.5.- Gidatzeko arauak eta jarraibideak

Bizikleta egiaztatu ondoren eta nondik ibili eta zein bide diren seguruak ezartzen dituzten oinarritzko arauak ezarri ondoren, dagoeneko irten gaitezke seme-alabekin bizikletan ibiltzera. Hauxe da unerik egokiena gidatzeari eta portaerari buruzko zenbait jarraibide emateko:

-Bide-seinaleak eta zirkulazioko arauak errespetatu. Semaforoak, zebra-bideak, seinale bertikalak eta bide-markak errespetatzeko daude. Irakats iezaiezu seme-alabei zeintzuk diren garrantzitsuenak, eta zer egin behar den kasu bakoitzean.

-Kontuz aparkatutako autoekin edo semaforoetan aurrera egitearekin. Gidariak edo bidaiariak edozein unetan zabal ditzakete ateak autotik jaisteko. Zuhurtzia eta kontu handia.

-Kontuz oinezkoekin. Zenbait tokitan oinezkoekin partekatu beharko du gunea. Erakuts iezaiozu kasuotan beharrezkoa dela abiadura asko moteltzea eta arreta gehitzea.

-Arrisku-faktoreak ekidin: Euria ari duen egunetan bizikletarekin irtetea saihestu daiteke, eta etxera ilundu aurretik itzul daiteke. Azal iezaiozu txikiari bustitako asfaltoa lehorra baino arriskutsuagoa dela, eta derrigorrezkoa dela islagailuak erabiltzea eta, zenbait kasutan, baita argiak ere.

-Entzungailuak kanpora: Argi utzi behar diozu ezin duela inolaz ere entzungailurik erabili musika tresnak entzuteko. Arreta gutxitu egiten da, eta txikiek ezin dute entzumenara erabili.



Bidegorriak erabili



Eskularruak segurtasun elementu gomendagarriak dira



Zu ondo pasatzen baduzu zure umeak ez dira aspertzeko

7. KAPITULUA

: Beste egoera interesgarriak



7.1.- Nire seme-alabaren lehenengo irteera

Familia guztien bizitzan heltzen da seme-alabek gurasoei bakarrik zein lagunekin kalera irteten uzteko eskatzen dieten unea. Guraso askorentzat egoera korapilotsua da. Autoei eta errepideei beldur handia zaie, eta gurasoek umearen heldutasun maila baloratu behar dute lehenengo irteera hauek baimentzeko. Puntu horretan dagoeneko, gure seme-alaben portaera une horretara arte eman diogun hezkuntzaren arabera izango da, neurri handi batean. Hala ere, badira gurasoak lasaitzen lagun dezaketen zenbait aholku.

1.- Ibilbidearen plangintza egin. Galde iezaiozu semea-ri edo alabari nondik ibiliko den, zein tokitara joan nahi duen. Irteeraren aurreko egunean hara lagun dezakezu eta horrela korapilotsuenak izan daitezkeen puntuak aurki ditzakezue. Argi azaldu behar diozu halakoetan nola jokatu behar duen eta zer ezin duen inolaz ere egin.

2.-Ez iezaiozu autoenganako beldurrik sorrarazi, horrek are zalantziatiago sentiaraz dezake. Autoenganako eta zirkulazio arauenganako begirunea izaten irakats iezaiozu soilik. Eta mezu positiboa helaraz iezaiozu: oinarritzko printzipiook ontzat hartzen baditu, ez zaio zertan ezer gertatu.

3.-Kontuz lagunekin. Semea edo alaba lagunekin irtenez gero, baliteke euren portaerak eramatea. Gazte-gaztetan taldearen eragina oso handia da, eta oso zaila da haren kontra joatea. Gainontzeko umeen gurasoak ezagutuz gero, behar bada zenbait arau komun erabaki ditzakezue irteerotarako (errepide hau edo bestea ez gurutzatzea, bizikletan beti kaskoa eramatea...). Hala izan ezean, beti duzu aukera semea-ri edo alabari taldearen esana ez egitea izaera keinua dela helarazteko, eta horregatik ez duela zertan gutxietsita sentitu behar.

7.2.- Nire seme-alabak ziklomotorra nahi du

14 urtetik aurrera gida daitezke, eta ohikoa da nerabeek ikasturtea aurrera atera izanagatik “sari” opari gisa eskatzea gurasoei. Ziklomotorrak zilindro-bolumen txikiko motozikletak dira (gehienez 50 zentimetro kubo). Ez dute abiadura handirik hartzen eta, teorian, 50 km/h-ra hel daitezke gehienez. Hala ere, praktikan, gazte askok ibilgailuok “trukatu” egiten dituzte ihes-hodia zuzentze soila-



Normala da gazteek ziklomotor bat eskatzea gurasoei



Motozikletako kaskoa, beti soinean



GAKOA

Semeari edo alabari beti jantzarazi iezaiozu kaskoa eta egokiro lotuta eramanez, bestela ez baitu ezertarako balioko. Azkeneko estatistiken arabera, ziklomotor istripuetan hildako lau gaztetik hiruk ez zeramaten kaskorik.

rekin, eta horri esker araudiak baimendutakoa baino ia bi aldiz azkarrago joan daitezke.

Modu okerrean (legez kanpo) erabiliz gero, ziklomotorrak oso arriskutsuak dira. Estatuan urtean 14 eta 15 urte bitarteko 20-30 adingabe hiltzen dira eta 200 larriki zauritzen dira. Kopurua are handiagoa da 16tik 19 urtera bitartean dituztenen artean. Testuinguru honetan, ezaugarriok dituen ibilgailu bat erosi edo erosten utzi aurretik, gurasoek oso kontuan izan behar dituzte erabilera eta seme-alaben heldutasuna.

Bestalde, 16 urtetik beherakoek scooter horiek gidatzearen egokitasunari buruzko eztabaida goria piztu da egun. Horrela, Gobernu zentralak Bide Segurtasunerako Ekintza Plana onartu zuen joan den uztaillean eta bertan 14 eta 15 urteko nerabeei motozikleta horiek gidatzea debekatzeko asmoa duela adierazi zuen. Hala eta guztiz ere, zure semea edo alaba ziklomotorra gidatzeko gai dela uste baduzu, jakin ezazu hauek direla, gaingiroki, bete behar dituen baldintzak:

1- 14 urtetik gora izatea.

2-Gidatzeko lizentzia izatea. Horretarako azterketa psikofisikoa gainditu beharko du, eta baita tasa edo prezio publikoa ordaindu ere. Eskakizunen zerrenda osoa honako web orrian kontsulta daiteke: <http://www.dgt.es/tramites/conductores/licencias.htm>

3- Ziklomotorraren ezaugarri teknikoaren zirutagiria norberarekin eramatea. Industria sailak eman ohi duen karto mehe bat da.

4- Derrigorrezko aseguruia eramatea. Horrek erantzukizun zibila eta besteei eragindako kalteak bere gain hartu behar ditu. Biztanleriaren segmentu honek istripu kopuru handia izaten duenez, aseguruiaen kostua nahiko altua izaten da. Beste ohar garrantzitsu bat: zure semea edo alaba 16 urtetik beherakoa bada, ezingo du inor eraman bidaiari gisa (lagunartean “pakete” deitzen zaio horri).

Azkenik, galaraz ezazu, kosta ahala kosta, zure semeak edo alabak abiadura handiagoa har dezan motozikleta zuzentzea edo “trukatzea”. Hori egiteko baimena ematen badiozu delitu batean gaizkide izango zara, ekintza hori guztiz legez kanpokoa baita.

